

Hainbat jarduera izango dira liburuaren egunaren harira

Liburuak oparitzeaz gain, ipuin kontalari saioak eta liburu azoka ere izango dira eskualdeko herrietan.

OLAIA ZABALONDO. Ohi legez, liburuaren nazioarteko eguna ospatuko dute eskualdeko zenbait herritan. Bermeon, Busturian, Ean eta Gernika-Lumon izango dira jarduerak. Muxikak ere liburuaren eguna ospatuko du, baina astebete beranduago, hilaren 30ean, hain zuzen ere.

Busturiarrak izango dira liburuaren eguna ospatzen lehenengoak. Izan ere, gaur bertan ipuin kontalari saioez gozatzeko aukera izango dute Altamira auzoko kultur etxean. Busturiko eskolako ikasleei zuzendutako ipuin kontalariak izango dira.

Lehenik eta behin, eskolako nagusien txanda izango da. 10:00etan hurbilduko dira kultur etxera 6 urtetik 8 urtera bitartean dituzten ikasleak. Ondoren, 11:00etan, txikien txanda izango da, 2 urtetik 5era bitartean dituztenen ikasleena, hain zuzen.

Liburuak oparituko dituzte

Bestalde, Bermeoko Joxe Miel udal liburutegian, urtero egiten duten moduan, liburuak eta larrosak oparituko dituzte bihar. Hala ere, opariak liburutegia sarri erabiltzen duten horientzako bakarrik izango direla jakinarazi dute. Amaitu arte banatuko dituztela azaldu dute, gainera.

Arratsaldean udal liburutegiak antolatzen duen ' Bermeo Uria ' narrazio lehiaketako sari banaketa ekitaldia egingo dute Nestor Basterretxea aretoan. 19:00etan hasiko da sari banaketa eta Aizkoa Olabarrietak gidatuko du.

Gernika-Lumoko udal liburutegiak ere liburuak oparituko ditu liburuaren nazioarteko egunean. Kasu horretan ere erabiltzaileen artean banatuko dituztela azaldu dute.

Liburu azoka, Ean

Ean ere liburuaren nazioarteko egunaren harira zenbait jarduera antolatu dituzte. Lehenengoa bihar arratsalderako antolatu dute. Andres Urrutia euskaltzainburuak hitzaldia emango du, 19:30ean, Eskolondon.

Bigarren jarduera, berriz, zaturako antolatu dute. 12:00etan hasi eta 14:00ak arte liburu azoka egingo dute. Eskolondon liburuak trukatzeko aukera izango dute. Herritarrek etxean dituzten liburuak beste batzuegatik aldatu ahal izango dituzte.

Hilaren 30ean ospatuko du, ostera, Muxikak liburuaren eguna. 18:00etan hasita ipuin kontalari saioa egongo da Zubieta-erota eraikinean, Kurtzero auzoan.

Ipuin kontalaria ilustrazioarekin lagunduta izango dela jakinarazi dute antolatzaileek. Batek ipuinak kontatzen dituen bitartean besteak marrazkiak egingo ditu. Hain zuzen ere, Kontu kantoi taldekoak ariko dira ipuinak kontatzen.